



2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekakoa

Programa: 010 Zerbitzu Orokorrak

2016ko Aurrekonturako helburuak

1. Berdintasuneko Foru Plana ezartzea.

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adierazle helburuak	Adierazle Betetzea	Balorazioa

B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila	Balorazioa
1.1. Genero ikuspegiaren integrazioa garatzea kontratazio prozeduretan.	Ertaina	Departamentuan prestatzen diren kontratuetan, beti ere horien xedearen arabera posible baldin bada, baldintza agirietan genero ikuspegiaren irizpideak sartzeko lan egin da.
1.2. Genero ikuspegiaren integrazioa garatzea diru laguntzen ebazpen prozeduretan.	Ona	Departamentu arteko Talde Teknikoaren barruan hainbat diru laguntzen oinarri arautzaileetan genero ikuspegia zehaztu eta idazteko lana egin da.
1.3. Departamentuaren idazkietan.	Ona	Idazkari teknikoak, idazkiak sinatu baino lehen, idazkietan hizkuntzako genero ikuspegia dagoen ala ez berrikusten du.



2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekakoa

Programa: 100 LK- Lurraldearekiko Konpromezua

2016ko Aurrekonturako helburuak

1. Enpresa berritzaileak sortzea eta enpresa horien iraunkortasuna bermatzea
2. Gipuzkoa ikasten duen Lurraldea bilakatzea
3. Pertsonetan, erakundeetan eta lurraldean oinarritzen den Lurralde lehiakor bat sustatu

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adierazle helburuak	Adierazle Betetzea	Balorazioa
Garapenaren adierazlea: BOZI buruzko ikerketa proiektuetan emakume kopurua areagotzea.	2015 eta 2016 % konparaketa	% areagotzea	57,87%--> 64,81%	Emakumeen partaidetza handitzen da
Garapenaren adierazlea: Ikaskuntza ekintzetan emakumeen partaidetza areagotzea	2015 eta 2016 % konparaketa	% areagotzea	39,8→39,6	Emakumeen partaidetzaren mantendu egin da
Garapenaren adierazlea: Enplegaturik dauden emakumeen eta gizonen arteko diferentziala (ikaskuntza ekimenetan parte-hartzea) areagotzea	2015 eta 2016 diferentziala konparaketa	Diferentziala handitzea	-9,6 → -2,1	Eboluzio oso positiboa. Ikaskuntza ekimenetan parte-hartze enplegaturik dauden emakumeen eta gizonen arteko diferentziala negatiboa izaten jarraitzen du baina nabarmenki hobetu da.
Emaitzaren adierazlea: Emakumeen ekintzailetasun-tasa areagotzea.	2015 eta 2016 tasa konparaketa	Tasa handitzea	5,2 →3,61	Tasa jaitsi egin da eta gizonena baina gehiago
Emaitzaren adierazlea: Emakumeen sustatuko enpresak	2015 eta 2016 % konparaketa	% areagotzea	61,03 → 70,02	% etan hobekuntza handia emanda baina enpresen kopuruetan mantentzen da
Emaitzaren adierazlea: <i>Jarduera ekintzailearen tasan diferentzialak gutxitzea</i>	2015 eta 2016 diferentziala konparaketa	Diferentziala gutxitzea	+0,21 →-0,19	Norabidearen aldaketa. Emakumeen tasa gizonena baina txikiagoa da bina hala eta guztiz ere diferentziala ez da hain handia



B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila	Balorazioa
Garapenaren adierazlea: Generoaren ikuspegian barne lantaldea gaitzea.	Ertaina	Ikaskuntza informalaren bidez garatuta



2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako.

Programa: 110 Eskulangintza Sektorearen sustapena.

2016ko Aurrekonturako helburuak

1. Eskulangintza sektorearen ospea eta ikusgarritasuna handitzea
2. Sektorearen lehiakortasuna sustatu (inbertsioak, feriak, prestakuntza....)

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adierazle helburuak	Adierazle Betetzea	Balorazioa
Garapenaren adierazlea: Lagundutako proiektuetan emakume kopurua areagotzea.	2014 eta 2015 % konparaketa	% areagotzea	67,57 → 64,56 (50) (51)	Emakumeen partaidetza zertxobait jaitsi egin da eta urtetan zehar ikuspegitik kontsolidatzen ari da
Garapenaren adierazlea: Erregistroan dagoen emakumeen kopurua handitzea	2014 eta 2015 % konparaketa	% areagotzea	57,74 → 58,33 (101) (119)	Emakumeen partaidetza handitu egin da
Emaitzaren adierazlea: Emakumeen partaidetza handitzea	% Erregistroan dauden/egindako eskaerak	% batabestea baino handiagoa	Emakumeak 46,55 Gizonak: 34,94	Emakumeen partaidetza gizonena baino askoz handiago da Erregistroan dauden kontutan harturik

B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila	Balorazioa
Emaitzaren adierazlea Emakumeak azaltzea interlokutore era arduradun gisa Sektore eta Administrazio Publiko aurrean	Handia	Emakume gehiagok Administrazioaren aurrean solaskide gisa aritzeko guneak sustatzea.



2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekakoa

Programa: 200 Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Sarea

2016ko Aurrekonturako helburuak

2016an, Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarea programarako aurrekontua bi kontu sailetan banatuta zegoen: 2015eko deialdian ordaintzeko konpromisoei zegokiena eta 2016ko deialdiari zegokiona. Gainera, 2017. urteko aurrekontuan, bazegoen kontu-sail bat 2016. urteko deialdiren bidez diruz lagundutako proiektuen azken ordaintetarako egiteko.

2015eko deialdian eta 2016an onartutako oinarri berrietan eta deialdian, balorazio irizpideen artean, puntuazio handiagoa jarri zen ikerketa taldean emakume gehiago zeuden proiektuentzat eta emakume bat buru zuten proiektuentzat. Halaber, gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatuko zuten ekintza positiboak baloratu ziren eskaera aurkeztu zuen zentroan. Halaber, oinarri arautzaileetan, entitate onuradunen betebeharren barruan, hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatzeko beharra ezarri zen diruz lagundutako jarduerari buruzko informazio, publizitate eta propaganda guztietan.

2015ean diruz lagundutako jarduketak 2016an amaitu eta likidatu ziren. Deialdi hori bukatuta, aurreikusita zegoen diruz lagundutako proiektuetan emakumeen presentzia balioztatzea.

2016an, diruz lagundutako proiektuen kopuru handiagoa zela eta, adierazle esanguratsuagoak lortuko genituela espero genuen.

Beraz, helburuak honako hauek ziren:

1. 2015eko deialdiko generoaren inguruko behin betiko datuak ezagutzea
2. 2016ko deialdian emakumearen presentziaren balorazioak izan zuen eragina ezagutzea

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adierazle helburuak	Adierazle Betetzea	Balorazioa
 2015eko deialdia. Azken datuak lortzea	Lagundutako ikerketa taldeetako emakumeen ehunekoa	% 38	% 44,6	Emakume kopuru handia antzematen da diruz lagundutako proiektuen ikerketako taldeetan. Kopuru hori izan da 2015eko helburuan planteatzen zena eta 2014ko deialdiaren adierazlean lortu zena baino handiagoa, baita EUSTATEN datuen arabera espero zena ere. EUSTATEk argitaratu du ¹ , 2015ean, EAEn I+G arloan aritzen diren langileen % 36 emakumeak direla; Gipuzkoan, % 35. Segur aski deialdi honetan ikerketa taldeetan emakumeak izatearen inguruan egiten den balorazioaren ondorioa izango da.
	Lagundutako proiektuen buru diren emakumeen ehunekoa	% 32	% 31,25	Hazkunde hori ez da islatzen proiektuetako emakumezkoen lidergoan, errealitatearen antzekoagoa izanik. Balorazioaren eragina ez da islatzen adierazle horretan, beharbada, proiektuaren buru izatea CVearen sartzen den merezimendu bat delako.



 2016ko deialdia. Emakumearen presentzia eta lidergoaren balorazioak izan duen eragina	Lagundutako ikerketa taldeetako emakumeen ehunekoa	% 39	% 33	Datuak aurkeztutako eskaeretatik atera dira, beraz, justifikatu eta gero, balioztatu behar izango dira.
	Lagundutako proiektuen buru diren emakumeen ehunekoa	% 33	% 27	Emakumeen kopurua jaitsi egin da, bai taldeen parte hartzean, bai proiektuen buru izatean.
B) <u>Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa</u>				
Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila	Balorazioa		



2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekakoa

Programa: 210 Internazionalizazioaren sustapena

2016 aurrekontuko helburuak

Internalizazio programaren helburua da Gipuzkoako enpresak kanpora ateratzeko prozesua sustatzea. 2013ko ekitaldira arte, bi programa hauek ezarri ziren laguntzak emateko:

- Internalizazio programa, Gipuzkoako enpresak atzerrian, Europar Batasunetik kanpo, ezar daitezzen sustatzekoa;
- Produktu berriak nazioartean merkaturatzeko programa, Gipuzkoako enpresek produktu berriak nazioarteko merkatuan sartzekoa (Europar Batasunetik kanpo).

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adierazle helburuak	Adierazle Betetzea	Balorazioa

B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila	Balorazioa
Emailtzaren adierazlea: Kanpo merkatuetara bidaiatzen duten emakumeen %a	2016: 25% (4/16) 2015: 31,82% (7/22)	Emakumeen partaidetza jaitsi egin da ekintzak garatu diren herrialdeen %-aren gain. Halere, datu hauek zuhurtasunez interpretatu behar dira, ekintza guztiak ez baitira garatu oraindik. Turquía, Honduras, México, Emiratos Arabes Unidos



2016ko KONTU OROKORRA. GENEROAREKIN LOTUTA PLANTEATUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde orekakoa

Programa: 220. Berrikuntza digitala

2016ko aurrekontuaren helburuak

Genero ikuspegia erantsita, hau da programaren helburua:

- Gipuzkoa lurralde "adimentsu" bihurtzea, elektronikako, informatikako eta komunikazioko teknologiak aplikatuz, eta industria (4.0 Industria) eta enpresa zerbitzu aurreratuak sustatuz.
- Horretarako, gure asmoa da: estrategia digital berri bat diseinatzea EIKT teknologiak ehun ekonomiko eta sozialean sartzeko, erosketara publiko berritzailea sustatuz, proiektu aitzindariak ezarri, edo sektoreko enpresen I+G sustatuz, besteak beste.
- 4.0 Industria sustatzea. EIKT soluzioak garatzea eta jartzea, 4.0 Industria eta RIS3 sektoreetara bereziki bideratuak.
- Enpresa txikien errehabilitazio ekonomikoa bizkortzen laguntzea, haien eraldaketa konpetitiboa bultzatuz, EIKT teknologiak modu adimentsuan eta eraginkorrean erabiliz.
- Lurralde adimentsuaren eredu partekatu bat sustatzea ("Smart Gipuzkoa"), zeinak, baliabide publikoen erabileraren eraginkortasuna bermatuta, lagunduko baitie iraunkortasunari eta lurralde orekari, berrikuntza publiko/pribatuaren ekosistema berri bat sortuz, zeinak aukera eskainiko baitie gure enpresei jarduerara ekonomiko bat sortzeko eta kalitateko lanpostuak sortzeko.

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa

Planteatutako helburuei lotutako ekintzak	Adierazlea	Adierazleen helburuak	Adierazleen betetze maila	Balorazioa:

B) Adierazle neurgarririk gabe planteatutako helburuak. Ebaluazio kualitatiboa

Planteatutako helburuei lotutako ekintzak	Betetze maila	Balorazioa
Araudiaren genero inaktuaren aurretiazko azterketak egitea.	100%	Deialdi guztiak berrikusi dira, emakumeak enpresaren esparruan ahalduzko elementuak sartuz.
Kudeatutako jardueretan emakumeek duten presentzia zein den ezagutzea.	100%	Programa guztietan eskatzen zen informazio hau: emakumeek enpresaren barruan betetzen duten papera eta genero berdintasuneko planik ba al zuten.
Klausulak sartzeko, hartara emakumearen presentzia handitzeko eta hobetzeko sustatu beharreko jardueretan.	100%	Programa guztietan positiboki baloratzen zen enpresan zegoen emakume kopurua eta hierarkia maila, eta baita ere genero berdintasuneko plan bat izatea. Aztertzen den proiektua enpresako langileek egiten duten kasuetan, positiboki baloratzen da emakumearen parte hartzea lan taldeetan.



2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka Departamentua

Programa: 300 Landa Garapena eta Nekazar Egiturak

2016ko Aurrekonturako helburuak

- 1.- Landa ingurune zerbitzuak eta azpiegiturak garatzea.
- 2.- Euskal Autonomi Erkidegoko landa-garapen iraunkorreko planen barruan dauden sustapen neurriak erabiliz, ustategien lehiakortasuna bultzatzea.
- 3.- Ekoizpen sektorea gaztetzen laguntzea eta, beraz, bultzatzea, batetik, belaunaldi ordezpenean eta, bestetik, gazteek eta emakumeek nekazaritza ustategien titularitatea eskuratzea.
- 4.- Ingurumena babestu eta espazio naturalak zaintzen dituzten metodoak sustatzea nekazaritza ekoizpenean.
- 5.- Erabilerarik gabe dauden nekazaritza azalerak mobilizatzea, (Nekazaritza Lurren Funttsaren bidez) azalera erabilgarriaren galera saihesteko, ustategietan neurri berriak ezartzeko eta nekazari gazteak finkatzeko.

A) Adierazle neurgarrieekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adierazle helburuak	Adierazle Betetzea	Balorazioa
1.1. Ordezkapen zerbitzuak	Emakume onuradunen ehunekoa Emakumeek jasotako aurrekontua	Parte-hartze orekatua lortzea	2014 – 2015 - 2016 %34...%30,5 ...%33 2014 – 2015 - 2016 %27...%25,7...%28	Generoarekin lotutako helburua, gizonezko eta emakumezkoen artean parte-hartze orekatua bilatzea dela kontuan hartuta, 2014 eta 2015eko datuak aztergai hartu dira alderaketa ikusteko. Burututakoaren erreferentzia gisa, 2014, 2015 eta 2016 artean %ren eboluzioa hartu da. Ikusten denez emakume onuradunen portzentajeak ez du behera egin. Aurrekontuak 2014ko maila berreskuratu du.
2.1. Nekazaritzako ustialekuak modernizatze diru laguntzak.	Emakume onuradunen % Emakumeek jasotako aurrekontu	Parte-hartze orekatua lortzea	2014 – 2015 - 2016 % 17 %24,6 %16,3 2014 – 2015 - 2016 %9 %19,9 %21,8	Ikusten denez emakume onuradunen portzentajea jaitsi egin da, 2014ko mailaraino. Aurrekontuarekin kontrakoa gertatu da, hazten jarraitu du. Titulartasun partekatuko 6 eskaera onartu dira, eskatzaileen %4,2 suposatzen dute eta aurrekontuaren %5,4. Gainontzeko eskatzaileak ez dira denak gizonezkoak, onuradunen artean elkarrekin ere badaude.



2.2. Mendi aldeetako berezko zailtasunak konpentsatzeko diru laguntzak (ICM).	Emakume onuradunen Emakumeek jasotako aurrekontua	Parte-hartze orekatua lortzea	2014 – 2015 - 2016 %38 %35,4 %36 2014 – 2015 - 2016 %29 %27,5 %31,9	Kasu honetan emakume onuradunen portzentajea mantendu egin da, 2015arekin alderatuz. Aurrekontuan, aldiz, zertxobait igo da. Titulartasun partekatuko 9 eskaera onartu dira, eskatzaileen %1,3 suposatzen dute eta aurrekontuaren %1,7. Gainontzeko eskatzaileak ez dira denak gizonezkoak, onuradunen artean elkarrekin ere badaude, batzuek kideen artean emakumeak dituztenak.
3.1. Nekazari gazteak nekazaritzako ustialekuetan sartzeko diru laguntzak.	Emakume onuradunen %/ Emakumeek jasotako aurrekontua	Parte-hartze orekatua lortzea	2014 – 2015 - 2016 %36....%40....%57,9 2014 – 2015 - 2016 %41 %35 %56	Kasu honetan emakume onuradunen portzentajeak igotzen jarraitu du, nabarmen, eta beste hainbeste gertatu da aurrekontuarekin.
5.1. Lur Funtsaren 2016ko deialdia.	Emakumeei esleitutako lursail kopurua	Parte-hartze orekatua lortzea	%14,3	Emakumeei esleitutakoaz gain, 2016ko deialdian lursail bat elkarrekin bati esleitu zaio, bi kideetako bat emakumea duena.

B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila	Balorazioa